

# DONE JAKUE BIDEA BIZKAIAN ETA BERE ONDARE ARTISTIKOA



# SARRERA HISTORIKOA

Santiagoren hilobira erromesaldia egiteko Erdi Aroan sortu zen bideari deritzo Santiagoko bidea edo Done Jakue bidea.

813. urtean ermitari batek erromatar behe inperioko hilobi bat aurkitu zuen Asturiar Erresumako mendebaldean, Galizian, baina erromesbideak XI. mendera arte ez zuen izan arrakastarik: orduan musulmanen eta erresuma kristauen arteko mugak hegoalderago ezarrita baitzeuden eta Nafarroako Antso III.ak ibilbide nagusia finkatu baitzuen. Ordura arteko Palestinako Leku Santu eta Erromako San Pedrorako erromesbideei beste hau gehitu zitzairen, eta XVI. mendera arte garatu zen.

Santiago apostolua gurtzeko eta haren hilobia ikusteko egindako erromesaldien arrakasta garai hartako interes erlijioso-politikoetan aurkitu behar da.

VIII. mendearen hasieran musulmanek Iberiar Penintsula bere menpe hartu zuten iparraldeko gune batzuk izan ezik (geroagoko erresuma kristauak: Asturiarra, Iruñekoa...). Bisigotuen garaitik Toledon zegoen penintsulako Elizaren burua aldenduta zegoen jadanik ortodoxiatik (Adopzionismoa onartu zuen, eta Erromako Elizak herexiatzat jo zuen hori). Badirudi Asturiar erregeek Santiagorenganako gurtza bultzatu zutela, botere karolingiarrak lagunduta, Toledorengandik independentzia erlijiosoa lortzeko.

Liebanako Beatoak, asturiar gorteko teologo eta kontseilari erlijiosoak, Toledoko adopzionismoaren aurkari nagusienak, 776. urtean aipatu zuen " Apokalipsiari Komentarioa" lanean Santiago apostoluak berak ekarri zuela Ebanjelioa Hispaniara; honen ondorioz, Santua ofizialki gurtzen hasi ziren erresuma horretan.

Asturiar errege Alfonso II.ak lortu zuen Leon III.a Aita Santuak hilobi hartako erlikiak, ordurako "mirarizkoak", Santiago Apostoluarenak zirela "egiaztatzea", Karlomagno enperadoreak babestuta.

Ildo horretatik, zaldun estatusa aitortu zioten Apostoluari 859ko musulmanen kontrako Clavijoko borrokan (Errioxa) emandako laguntzagatik eskerrona azaltzeko. Hemendik aurrera honela agertzen zaigu irudikatuta: ezpata eskuetan, zaldi zuri baten gainean jezarrita, kristau fedearen eta, baita, asturiar erregeen etsaiak menperatzen (Santiago "mairu-hiltzaile").

Europa erdialdeko berpizkunde kulturalaren garaian, errege asturiarrek eta Santiagoko Teodomiro apezpikuak eraiki zuten lehen kapera Apostoluaren ustezko hilobia aurkitu zuten lekuan, ondorengo mendeetan berrereiki eta handitu egin dutena.

Euskal lurraldeari dagokionez, XI. mendean Nafarroako Antso III.ak ibilbidea zehaztasunez finkatzeko egindako ahalegina ere lagungarria izan zen, ibilbidera jendea erakartzeko.

Done Jakue bideak Europako herrien arteko lotura sozio-ekonomiko eta kulturalak eragin zituen. Bidean zubi, ospitale, auzo edo "burgu" eta Galtzadaren zerbitzu hoberako jaiok ziren hiri osoak ere eraiki zituzten. Arte erromanikoa hedatu zen, baita merkataritza bide berriak ere.



Iberiar Penintsula 800. urtean



Iberiar Penintsula 1000. urtean

# ERROMES BIDEAK

Erdi Aroan bi modu zeuden bekatuetatik askatu eta salbamena ziurtatzeko: erromes ala gurutzatu izatea.

X. eta XI. mendeetan musulmanen indarrek Palestina (Jerusalem) alderako bidaia guztiz arriskutsua bihurtu zutenean hedatu zen Santiagorenganako zaletasuna Kristautasunean, eta Erromako Gotzainek Gurutzadetara deitu zuten Lurralde Santua "askatzeko".

Gurutzadak Elizak eta Kristau Erresumek bultzatutako gerra ekimenak izan ziren; Kristautasun osoak bereak bezala hartu zituen, eta Palestina aldeko santutegiak profanazio eta txikiziotik "salbatzeko" helburua zuten.

Erromesaldiak, aldiz, leku santuetara egindako bidai erlijioso eta baketsuak ziren. Hiru izan ziren erromes-gune nagusiak: Jerusalem, Erroma eta Done Jakue. XII. mendean sortutako Gesta-Kantek ematen dute horren berri.

Nahiz eta gehienetan Done Jakue bidez hitz egin, bide bat baino gehiago egon ziren Apostoluaren hilobira heltzeko.

Frantzian daude bide honetako abiapuntu ziren lau hiriak: Paris, Vezelay, Le Puy eta Arles; hortik ekiten zioten bideari Frantziako eta gainontzeko Europako erromesek (gehienak frantziarrak).

Beraz, lau ibilbide famatuena hauek izan ziren:


1) Frantziako iparraldetik zetorrena (Paris eta Orleans). Tours, Poitiers era Angulemetik pasatzen zen, eta "turonense" a deitzen zitzaion.

2) "Limusina bidea". Alemaniako iparraldetik Frantziako Veزالayko abatetxe eta santutegitik igaro eta ondoren Limoges eta Perigeuxetik pasatzen zen.

3) Alemaniako hegoaldetik Lyonera zetorrena. Le Puy-en-Velay santutegitik eta Conques eta Moissac abatetxeetatik igarotzen zen.

Hiru bide hauek "ad Hostavallem"en (*Erromesaren gidan* aipatuta) elkartzen ziren, 1140. urtean hiri pilaketa bezala aipatzen den gaurko Ostabat euskal herrixkaren ondoan, eta gero bitan bereizten zen: bata, garrantzitsuenak, Pirinioak zeharkatzen zituen Orreagatik; eta besteak, ospe gutxiagokoak, Euskal Herriko kostaldetik Iberiar Penintsulako iparraldea zeharkatzen zuen Santiagoraino. Orreagatik Iruñera zihoanak, Sakana eta Arabako Lautada zeharkatzen zuen mesetan sartzeko, baina Antso Handia III.ak Iruñetik Gares, Lizarra eta Errioxarantz bideratu zuen XI. mendean musulmanei irabazitako lur hauetan bere subiranotasuna adierazteko.

4) Laugarren bideak Italia eta Frantziako hegoaldeko erromesak biltzen zituen eta Arles, Tolosa eta Oloroetik pasatu eta Somport mendatetik zeharkatzen zituen Pirinioak. Handik Jaka eta Monreal zeharkatuz Gares-Puente la Reinara iristen zen, Orreaga eta Iruñetik zetorrenarekin bat egiteko.




## Erromes Bideak

Euskal Herriko kostaldeko bideari dagokionez, itsa-saldetik sartu, Baionatik, eta Irun aldean bitan bereizten zen:

- Batak San Adrian zeharkatzen zuen, Gasteizera jaitsi eta Burgos aldeko lurraldeetara sartzen zen Mirandatik.
- Besteak, Kantauriko itsasertza jarraituta, Gipuzkoa eta Bizkaia zeharkatzen zituen eta Kantabrian sartzen zen.

Bi bide horiek izan ziren erabilienak XI. mendera arte, Errioxako lurraldea musulmanen esku zegoen garaian.



Done Jakue bideak Euskal Herrian zehar



# DONE JAKUE BIDEA BIZKAIAN

Aipatu dugu kostaldeko bidea, baina badirudi bide eta bidexka asko zeudela Bizkaian zehar.

Nahiz eta antzinatik erabilia izan, dokumentuetan ez dugu bide honi buruzko aipamen zehatzik XV. mendera arte: 1491n, Arzendjango apezpikuak aipatu zuen kostaldeko Done Jakue bidea egin eta Portugaleteko hiribilduan egon zela. Hurrengo mendean, Urduñako Udal Artxiboko 1506ko dokumentu batean La Peñako igarobidea zeharkatzeko baldintzak daude zehaztuta, eta hor esaten da erromesek ez zutela ordaindu beharrik.

## **Gipuzkoatik Markinaraino**

Gipuzkoatik Bizkaira sartzeko hainbat ibilbide proposatu dituzte adituek:

Horietariko bat Astigarrabiatik Etxebarriako elizatera zihoan, Arnoateko mendatea eta San Miguel gaina zeharkatuta, gero hortik Markinako hiribildura.

Bigarren bat Santa Magdalena basilikatik sartzen omen zen Bizkaian, Plazakolara (Markina) jaisteko.

Hirugarren batek aurrekoaren ibilbide paraleloa egiten zuen; Arnoatetik sartzen zen Bizkaian, Amallo ibaiaren arroa jarraituta, gero Larruskainetik Aspiltzara zihoan, bertan aurreko bidearekin bat egin eta Markinara heltzen zen.

## **Markinatik Gernikara**

Markinan, Abesuako Santo Cristotik Erdotzako Andra Mari basiliza gotikorantz zihoan bidea. Tradizioak dioenez,

ermita horren ondoan, Santiago baserrian, ostatu bat zegoen erromesentzat.

Hortik, Iruzubieta eta Bolibar igaro ondoren, antzinako galtzada bat jarraituta Ziortzara heltzen zen, eta hortik Munitibar eta Gernikara.

### **Gernikatik Bilbora**

Gernikan bideak bi norabide hartzen zituen: bata, iparraldekoa, Bermeorantza; eta bestea, hegoaldekoa, Bilborantza. Erdi Aroan eta ondorengo mendeetan Bermeo Kantauri kostaldeko porturik garrantzitsuenetarikoa izan zen: Gaztela eta Europako iparraldearen arteko merkataritza bideratu eta bertatik sartzen baitziren itsasoz etorritako erromes asko (monje irlandarrak eta bidaiari frantziarrak). Erromesek Orduña-Bermeo merkataritza bidea erabiliko zuten Gaztelatik zihoan Done Jakue bidearekin bat egiteko.

Hegoaldeko bideak Gernikako Andra Mari eliza eta Juntetxea igaro ondoren hiribildua uzten zuen, eta Muxika eta Morgatik Larrabetzu, Lezama eta Zamudiora abiatzen zen. Hemen, Larragoiti-dorretxearen ondotik Santo Domingo gainera zihoan, Artxanda zeharkatu, Begoñara eta Bilbora Zamudioko Atetik heltzeko.

### **Bilbotik Kantabriara**

Bilbon bi norabide hartzen zituen bideak: bata Kadaguaren arrotik Balmasedara eta handik Gaztelako lurraldeetan sartzen zen frantses bidearekin bat egiteko Carrión de los Condesen; bestea Ezkerraldeko Barakaldo, Sestao eta Portugalete igaro eta kostaldetik, Muskizetik, Kantabrian sartzen zen El Haya herrian.

# ONDARE ARTISTIKOA



# ZIORTZAKO MONASTERIOA



## HISTORIA

Tradizioaren arabera, X. mendean, 968. urteko Jasokunde egunean hain zuzen ere, inguruko fededunak Gerrikaitz barrutiko Garaiko Santa Luzia elizan meza entzuten zeudela, jaunartze ostean, arrano koroatu bat hilerrira abiada bizian jaitsi zen. Bere erpeetan buru-hezur bat hartu ondoren, hegazkada azkarrean gorantz joan zen.


Jendeak harrিতuta begiratu zion agerpen ustekabeko eta ikaragarri hari, animaliak bere harrapakin itzaltsua askatu zuela ikusi arte. Gertakizun hori ikusi zutenek leku horretan Ama Bir-jinaren omenez basiliza bat jaso behar zela pentsatu zuten.

Kondairak azaltzen duenez, inguru hori "cenaorriak" - gaztelaniaz "torvisco"- deitutako belarrez josita zegoen, eta hortik gaurko izena: "Cenarruza".

Baina beste batzuen iritziz, izenaren jatorria bere egoeraren beste ezaugarri batzuek markatzen dute, zehazki, "Cear otza", "ladera fría" gaztelaniaz, eta hortik "Ziortza" izena. Dirudenez, bigarrena da etimologiarik zuzenena, nahiz eta armarrian lehen deitura, "Caurica", zerbait aldatuta azaldu.



Kondairan esaten dena egia ala gezurra izanda ere, aparteko lekua bihurtu zen bertan bizi edo bertara hurreratzen zirenentzat. Horrela hasi zen leku honen historia, gorabeheraz betetako historia, inguru hau erakarpen eta zabalkunderako gune bihurtu zuen historia: santutegia, kolejiata, parrokia, monasterioa...



## IBILBIDE HISTORIKO LABURRA

Kukulako Donemiliagan (Errioxa) aurkitutako kartulario baten arabera, X. mendean han eliza bat zegoen. Dirudienez, ezin da agiriaren egitasuna baieztatu, baina horrek ez du esan nahi gezurra denik; hainbat gauzak pentsarazten baitigute leku horretan, antzina, santutegia eta kaperaren bat egongo zela.

Baina historiako daturik fidagarriek XII. mendearen amaieran eta XIII. mendearen hasieran kokatzen gaituzte. Azkeneko berritze-lanetan egindako indusketek eraikuntza erromanikoaren zimenduak, sasoi hartarako tamaina handikoak, azaleratu dituzte.

Aldi honetan, garapen ekonomikoa eta garapen demografikoa ziren nagusi Europa osoan, eta honek Euskal Herrian ere izan zuen eragina. Izan ere, gizatalde guztiz esanguratsuak lekukotu ziren Oiz mendiaren hegoaldeko hegalean eta Durangaldeko bailaretan. Euron hedapenaren eraginez, laster heldu ziren Lea eta Artibai erreken arrora. Ziortza eskualde horretan dago, erreka bien erdibidean, eta, beraz, kokatzeko eta baso eta larreak baliatzeko leku aproposan. Lehenengo antolaketa laikoa izan zen, eta abadeak ziren, seguruenek, elizatik hurbil zegoen Ziortzako Dorreko nagusiak.



Apurka-apurka, Bizkaiko familiarik ospetsuenak hemen batzen hasi ziren ezkontzak, bataioak edo hiletak ospatzeko baita auzirik garrantzitsuenez hitz egiteko ere. Horrela, XIV. mendearen erdialdera, inguruan ondasunak zituzten zaldun eta nagusi guztiek eman egin zituzten, euren eskubideekin batera, Jaungoikoari eta Amabirjinari atsegin emango zien elizgizonen elkarte bat bertan ezar zedin.

Seguruenez, erabaki horren eraginez eratu zen eliza barruan egon zen nekropolia edo hilerria. Aldare aurrean dauden hilobietako harrizko zoladurak maila ekonomiko altua zuten lagunak lurperatuta zeudela adierazten du, eta kontuan hartu behar da beste guztia egurrezkoa dela eta hor herritarrak lurperatzen zituztela. Gainera, hasieratik San Mikeli eskainitako kapera jaso izanak ere oraintsu esandakoa baieztatzen du.



## ELIZAREN SARRERA

Sarrerako atea baserri giroko gotikoaren barruan sar daiteke eta guztiz interesgarria da bere orijinaltasunarengatik.

Zazpi zutabe lirainek arkiboltei eusten diete, beraien kapitelak geometrikoak izanda inposta lerroetan amaitzen dira. Beherago, baketoi bat dago alderik alde, fuste txiki baten antzera.


Ez datoz bat noiz egin zen zehazterakoan, eta, batzuen iritziz XIV. mendekoa den arren, 1500. urtearen inguruan kokatu beharko litzateke.

Ateburuak arku eskartzanoa du eta tinpano edo frontoia ixten du behealdetik. Horrek zalantza berriak pizten dizkigu, eskaintzen dizkigun ikonografiak sasoiko eskemak apurtzen dituelako, estilo primitiboa baitu. Bestalde, horrek ez du esan nahi zaharragoa denik.

Hiru eskultura libre dira, oso ondo eginak, liraintasun handikoak. Erdian Kristo maiestate hieratikoa azaltzen da, erreselaren azpian jarrita, harrera egiteko jarreran, bake edo bedeinkapen keinua egiten.

Alboetan, aingeru musikari bi daude tubak jotzen, eta horien mentsulak irudi original biren gainean kokatzen dira.

Ezkerrekoak, ohiko aingeruekin alderatuz, gizakiaren bustoa du; eskumakoa, berriz, gizaki-tximinoaren irudi mitologikoa da.





## ELIZAREN BARNEALDEA

Sarrera koruaren behealdean dago, eta bertatik erai-kuntza txiki honen ezaugarriez jabetu gaitzke begirada batez. Euskal Herrian ohikoa den areto-oinplanoa du eta bost albotako absidea.

Egitura osoa gotikoa da, eta jatorrizko eliza erromanikoaren aztarrenen gainean jasota dago. XIV. mendean hasi ziren jasotzen eta sasoi horretakoak dira absideko zutabe erdi zilindrikoen kapitelak.

Ezkerrekoan, Iragarkundearen pasarte eta hosto batzuk agertzen dira, beharbada "cenaorriak"; eta eskumakoan kondairako arranoa, eta behealdean, aurrez aurre herensuge bi.

Gurutzeriako nerbio guztiak beranduago egin ziren, egoera txarrean zeudelako, edo edertasun handiagoa emateagatik. Horrela, eraikuntza osoa XV. eta XVI. mendeen artean altxatu zuten.

Nabea zabalegia izateak eragiten zituen zailtasunei konponbidea emateko erabili izan zen gotiko berantiarra, eta nerbio-sorta aberatsa izan zen irtenbidea.

Absidetik hurbil dagoen aurreko estalkia tankera alemaniarrekoa da: nerbio diagonalik ez eta tinpano bakoitzeko tertzelete bi ditu; baliabide hori, dirudienez, gutxi erabili izan zen Bizkaian, eta erabiltzekotan, bakarrik XVI. mendeko lehen urteetan.

Nerbioak hamahiru giltzarritan batu eta hiruko taldetan gurutzea eratzen dute. Erdikoan, handiagoa den honetan, ezkerreko eskuan eukaristia-forma hartuta Kristok bedeinkazioa zabaltzen dihardu. Gainerakoek ebanjelarien sinboloak erakusten dituzte: hainbat izar, eguzkia eta ilargia.


Koru gaineko bigarren zatia tradizionalagoa da, XV. mendearen amaierakoa, zortzi aldetako poligonoa marrazten duten nerbio eta arku fajoiak ditu. Hemen, giltzarri guztiak apainduta daude izarrak irudikatzen dituzten medailoiez; hor apostolu batzuk agertzen dira (Pedro, Paulo eta Andres...), eta erdikoak Ama Birjina irudikatzen du umea besoetan duela.

Gangei eusten dieten nerbio guztiak harrizko sorta nabarmenak eginez zabaltzen dira: elizaren erdian dauden zutabe erdi bakar bietatik eta hauei atxikitako hiru finagoetatik sortzen dira.

Azkenik, deigarria gertatzen da abside ortogonalan; nabeari dagokionez, ganga guztiz bitxia duen garaipen arku baten ostean ixten da. Arku fajoi nabarmenduak sortzen dira hormetako ertzetatik eta estalkiaren erdian elkartzen dira, alde bakoitza sakonki nabarmendu eta argi-ilunen joko ikusgarria eragiten dute.

Erdiko giltzarri leunetik luzetara nabe osoa zeharkatzen duen nerbioa irteten da, eraikuntza osoaren bizkarrezurra izango balitz legez, eta bertan batzen dira tenpluko nerbio guztiak.

Bao bik (bata zirkularra eta bestea, askoz handiagoa, lapranduna eta arku zorrozduna), argitasun egokia ematen diote presbiterioari.



## ERRETAULA

Elizako absideak hiru erretaula ditu: erdikoa errenazentista eta aldamenekoak barrokoak.

Ornamentazio multzoak eta eszena ikonografiko serioak eraginda, erretaula errenazentista dela garrantzitsuena esan daiteke.

Juan de Larrume eskultore maisuak egin zuen, beste artista biren laguntzarekin; bata senitartekoa zuen, Juan izenekoa, eta bestea Gerrikaitzeko mihiztatzaile bat zen.

Aipatutako horiek elizan denbora luzean lanean ziharduten Juan de Anitua eta Pedro de Horma izan zitezkeen.

Noiz egin zen ere ezin dugu zehaztu, baina 1529. urtean Diego de Irustak ez zegoela erretaularik idatzi zuen.

Bestalde, 1551. urtean lan honi oniritzia emateko Linge Flameuni deitu ziotela kontuan hartzen badugu, eraikuntzaren hasierako datarik ziurrena 1543. urtea da.

Hasieran, erretaula hau ez zegoen horma jotzen, Ama Birjinaren gelatxoari lekua uzteko; baina XVIII. mendean predela kendu eta hormari atxiki zitzaion. Gero, gaur egun dagoen oinarri barrokoa gehitu zioten. Honen guztiaren emaitza estilo biko multzo berezia izan zen: errenazentista eta barrokoa.

Ama Birjinaren Igokundeari eskainita dago, eta erdiko multzoak, eskulturak, haren bizitzako pasarteak erakusten ditu; aldamenetako kaleek margo apartak dituzte.

Erretaula aztertzeko, ezkerraldeko goialdean hasi behar dugu, eskumarantz jarraitu eta gero beherantz, liburu bat irakurriko bagenu bezala, hori zen eta erretaulen helburua: irudien bidez kristautasunaren pasarteak jakinaraztea.

Ordena honetan agertzen dira, aingeruaren Iragarpena Mariari, Mariaren Ikustaldia bere lehengusina Isabeli, Jesusen Jaiotza eta Errege Magoen Gurtza.

Zaila da egilea zein den jakitea, baina Gaztelakoak dirudite, Juan de Borgoñaren eskolakoak.

Erdiko kaleko goialdeak Ama Birjinaren Jasokundearen eta Koroatzearen misterioa irudikatzen du. Azpian, apainketa barrokodun horma-konka baten barruan, Ziortzako Ama Birjinaren eskultura gotiko dotorea dago, 65 zentimetro inguruko altuera duena eta XIV. mendearen bigarren erdikoa izan daitekeena.

Andre Mariak belaunetan umea jesarrita dauka. Umeak "Ave Maria" jartzen duen liburu bat darama bere ezkerreko eskuan.

Ama Birjinak aurpegi gozoa du, irribarre lasiaz. 1580. urtean zilarrezko koroa jarri zioten.

Bankua eratzen duten hiru taulek zazpi santuren gorputzenborrak dituzte. Erdiko hirurak euren sinboloen bidez antzematen dira, eta Pedro, Joan eta Paulo apostoluak irudikatzen dituzte. Gainerako laurak elizako doktore santuekiko lotura ematen dute aditzera, erregela, kartaboi eta liburuak daramatzatelako eskuetan. Honek badu zentzurik, izan ere, kanonikoek interes handia zuten kulturean, eta Ziortzan bertan liburutegi mardula osatu zuten.


Atikoa azkenean egin zen. 1550. urtean Irusta abadeak, Kalbarioa osatzeko, san Joan eta Ama Birjinaren irudiak eskatu zituen. Baina gaurko eskulturak ez dira jatorrizkoak. 1605. urtean jarri ziren, alferrik galduta zeuden lehenengoak ordezkatzeko.

Erretaula burutzeko, hiru triangelutan bukatuta, Betiereko Aita eta irudi bi daude albo banatan. Azken horiek ezin dira identifikatu, ez daukate eta inolako ikurrik.

Gainontzeko armazoia, estilo platereskoari dagokiona, apainketa baliabide itzel eta zehatzengatik nabarmentzen da. Bertan, hosto-borobilak, aingeru potoloak, borobildurak, armarriak, animalia txikiak eta euren artean kateatzen diren era guztietako irudiak. Guztiak kolore bizidunak, XVIII. mendean berriro pintatu ondoren, nahiz eta urdin tonua nagusitu .

Bertatik kanpo, baina bere aldamenean Beaugrantek egindako ume biren irudiak daude. Beste batzuek Flameunek egindakoak direla diote.





## BESTE PIEZA BEREZI BAT: KLAUSTROA

Ziortzak badauka oraindik gauza esanguratsurik eskaintzeko: Bizkaian bakarra den klaustro errenazentista.

Klaustrora sartzeko bi ate daude: bata elizaren barnean ezkerrean dago, eta bestea elizatik irtetean eskuman.

Klaustroak eliza, desagertutako ospitalea eta abadearen etxe berria lotzen zituen. Gaur jatorrizko eginkizun hori berreskuratu du, izan ere, monasterioa ostatuarekin lotzen du eta igarobidea ere bada.

Klaustroaren inguruko lehen datua 1560. urtekoa da; data honetan lanean dihardutela esaten da.

1583an kabildoak lana burutzea erabaki zuen, eta Pedro de Irusta kanonikoa arduratu zen azken gorabeheraz. Juan de Anitua maisu ezagunak hurrengo urtean amaitu zituen lanak.

Ez dakigu zeinek diseinatu zuen eta zeintzuk hasi zuten. Bata zein bestea izan daiteke (Juan de Anitua edo Pedro de Horma). Baina lanak hurbileko lagunei agintzen zizkietela kontuan hartuta, egilea Anitua bera izango zela pentsa dezakegu.

Klaustroa karratua da eta bi pisu ditu. Alde bakoitzak toskanar ordenako lau zutabedun ilara du, eta zutabeen gainean erdi-puntuko arkuak jasotzen dira. Giltzarriak kiribildura dotoredun mentsulez apainduta daude.

Arkuen arteko enjutak medailoiekin apainduta daude: erromesaren txirla daukate, eta gurutze hirustatsua erakusten dute. Ezaugarri bi horiek Irusta abadearen armariarenak dira, eta, bistan dagoenez, alde guztietan jarri zuen bere seinalea.

Goiko klaustroa behekoaren antzekoa da, baina karpanel arku zanpatuak ditu, eta giltzarria beheko arkuetako mentsularen antzera apainduta dago. Zutabe txikiak imitatzen dituen harrizko balastradaz ixten da. Arkuen enjutek ez dute medailoirik, baina erromes-txirla daukate (oraingoan kanpora begira) eta gurutzea medailoiarekin.

Goiko pisutik korura sartzen da arku zorrotzeko atea zeharkatu eta gero; hori aurreko aldi baten erreferentzia da, eta, beraz, aurretik beste klaustro edo gelaren bat egon zela pentsa dezakegu, zoruaren maila bera ere ez dator bat eta.

Arkuak beheko hormetaraino sartzen dira pisu bietan, mentsula zirkular dotoreetan oinarritzen da, eta horma tarteko gurutzaketei aparteko dotoretasuna ematen diete.

Goialde guztia zeharkatzen duen soka-friso batez dotore amaituta dago klaustro osoa, eta honen gainean teilatuko erlaitzaren azpian kokatuta, xake itxurako ilara osoa ikus dezakegu.

Behealdean, ate bakarra dago elizarako sarbidean. Beste ate handiago batzuk (abadearen etxera, ospitalera eta bigarren pisura igotzekoak) itxita daude.

Sarrerako atearen parean X.-XI. mendeetako hilobi bitxia dago, nahiko hondatuta, baina bistan ditu bere berezitasunak. Apainketa aberatsa du: eguzki, geometria eta xakearen inguruko gaiak, grekak...




Baina hilobiaren gauzarik deigarriena aurreko aldean duen zuloa da; zulo hori arrunta zen Oiz inguru horretan, eta helburu erritualak zituen. Beraz, elementu kristau eta paganoak nahastuta daude.

Aurreko aldean, gurutze bat, ferra-arkudun leihoa eta sei puntadun izarra zirkulu baten barruan daude.

Bere alboetako goiko ertza ondulatua da. Estalkia apurtuta dago, azken sutean egurtzar bat gainera jausi zitzaiolako.

Pieza horiek ez dute monasterioaren antzintasuna dudan jartzen, seguruenetik hilobiak kanpotik ekarritakoak izango direlako.



## DONE JAKUE BIDEA

Erromesek kostaldetik hartzen zuten ibilbidean, Ziortza Bizkaiko Done Jakue bideko etapa bat zen.

Dirudienez, Ziortzan bat egiten zuten penintsulan sartzeko Erdi Aroko merkataritza ibilbide batek eta bide erromatar batek. Horrela, eta lehen aipatu dugun bezala, kostaldeko erromes bidea Artibai arrotik sartzen zen Bizkaian, eta Markinatik igaro Bolibarreraino. Bolibarretik Ziortzara igotzen ziren erromesak, eta han eskaintzen zizkieten ostatua eta era guztietako laguntza. Gero, Gerrikaitz zeharkatu eta Gernikaraino iristen ziren.

Diego de Irusta abadea ahalegindu zen Ziortza sustatzen, eta Donejakue bideko igarobide edo atsedeen gune bihurtu zuen. Aparteko garrantzia izan zuen ospitaleak, holako harrera-leku bat egoteak gunearen kategoria adierazten zuen eta.

Horrela, Ziortzak makinatxo bat gauza eskaini zien ibiltari eta erromesei: atsedeen material eta osaketa fisikorako gunea, baita ere lekuaren edertasuna.

## MONASTERIO ZISTERTARRA

Ziortzan bizi diren lekaideak zistertarren elkartekoak dira. Bizkaian dagoen gizonezkoen biziera kontenplatiborako monasterio bakarra da. Horretan ere, beste hainbat gauzatan legez, Ziortza berezia da probintzia honetan.

# SAN ANTON ELIZA




San Anton eliza ez da Bilboko zaharrena, bai ordea, ezagunena, eta bere historia erabat uztarturik dago hiriarenarekin. Izan ere, hiri honen armarririk haren irudia biltzen du dagoeneko desagertua dagoen San Antongo zubi zaharraren irudiarekin.

San Anton elizaren eraikuntza data sarri eztabaidatu izan da. Gauza jakina da 1433an altxatu zela behin-behineko tenplu bat, eta 1482an

berrikusi zela hilobien banaketa, espazio handiagoa baitzegoen hasieran baino. 1493an beste erreferentzia dokumental zehatz bat dugu hain zuzen ere, urte horretan Errege-erregina Katolikoek esku hartu baitzuten Arbolantxatarrek eliza gotortzeko Legizamondarren saioa salatu eta eskatuta.

Data horiek, hots, XV. mendearen amaiera eta XVI. mendearen hasiera, islatuta gelditu dira tenpluaren elementu formaletan, gotiko berantiarraren berezkoak diren euskarri faszikulatu eta erdizutabeetan, esate baterako.



San Anton eliza orube arrokatsu batean dago oinarrituta. Bilboko gaztelua orube horretan kokaturik egon zen XIV. mendean, 1334 eta 1366 bitartean. Gaztelua eraitsi ondoren, lekua berriz erabili zen eliza eraikitzeko, berez oso zabala ez zen orubera moldatzera behartuta. Hortik datozkio oinplanoan agertzen dituen berezitasunak. Izan ere, bere hiru nabeek bost tarte dituzte eta burualde berezia erakusten dute, abside-ingururik gabea. Erdiko nabea asko bereizten da alturan albokoetatik, eta honek arbotante maila biren erabilpena du ondorio, erdiko ganga honek sortzen dituen bultzadei eusteko hain zuzen. Formalki Deustu eta Begoñako elizekin talde bat sortzen du eta antzeko ezaugarriak dituzte.

# SANTIAGOKO ELIZA

Santiagoko eliza da Bilboko alde zaharrean aurki daitekeen eraikin zaharrena. Eliza hau gotikoaren adibide eder bat da eta bere eskema arkitektonikoa nahiko paradigmaticoa da: altueran



mailakatzen diren hiru nabe, erdikoa zabalagoa eta altuagoa beti albokoak baino, eta alboko biak elkarri lotuta absidearen atzeko aldean girola baten bitartez. Eraikin honek nolabaiteko monumentaltasuna bilatzen du beraz, nahiz eta oinplanoan labur samar


gelditzen den, tramu bat falta baitzaio oinaldean gotikoko proportzioen erabateko perfektutasunera heltzeko. Erdiko nabeak triforio eder bat du barnealdera, alboko nabetak arku formeroen gainean eta horman zulatutako korridore estu bat, ia eginkizun praktikorik ez duena, baina oso efektu estetikoa sortzen duena.

Santiagoko elizaren formetan, nahiz eta eliza honek eraikitze aldi luzea izan -mende bat gutxienez-, Burgosko katedralaren eragina nabaria omen da. Eragin artistiko hori Burgosek Kantauri itsasoaren kostaldeko txoko honetan Behe Erdi aroan zituen interes ekonomikoei lotuta egongo zen.

Elizaren eraikuntza XIV. mendearen azken urteetan hasi zen eta gutxienez 1500. urtera arte luzatu zen, garai honetan -XVI. mendearen lehenengo hamarkada- klaustroaren eraikuntzarekin jarraitzeko.



Zoritxarrez ez da kontserbatzen eliza honen jatorrizko aurrealde zaharra, XIX. mendearen amaieran desegin baitzen gaur egun ikus daitekeen frantses kutsuko fatxada neogotikoa altxatzeko, -Severino de Achúcarro arkitektoaren lana azken hau-.



Klaustroak oinplano karratua du eta lau galeriak trazeriez beteriko arkuen bitartez irekitzen da erdiko patiora. Klaustro honetara, Posta kalera irekitzen den arku konopial baten bitartez sartu daiteke -San Migel aingeruaren ataria-, nahiko

narriatuta baina gotikoaren azken aldiko apainduraz beterik. Arku honetako konopioak benera edo pelegrienen maskorra erakusten du, eliza honen jakobear tradizioari erreferentzia eginez.

# GUEÑESKO ANDRA MARI

## ERAIKINA

Eraikina adibide bikaina da, aurreko mendeetan kristau komunitateek (hirikoak nahiz baserrikoak) euren beharrianen eta aukeren gaintik egindakoa. Izan ere, eliza monumentala da, katedral txiki baten dimentsioak ditu. Bertan, auzotarren hilobiak eroso gorde dira, horixe baitzen tenpluen dimentsioen arrazoi bakarra.

Gueñesko obrek, agiriek agerian jarri dutenez, mende oso bat iraun zuten (XVI. mende osoa) burualdea eta lehenengo tarte izango zirenen zimenduak ireki zirenetik. 1515ean bigarren tarte hasita zegoen, kruzorako pentsatuta; baina hori erori egin zenez, planak aldatu eta, formula tradizionalarekin jarraitu beharrean (gotiko mailakatu, Bizkaiko Martín eta Pedro de Olabe harginak interpretatzen ari zirena), formula modernoagoa aukeratu zuten, Errenazimentukoa, altuera bereko nabeak zituena. *Zutabe ugariko eliza* berri hori Juan de Rasines Kantabriako harginak proposatu zuen. Gero, lanak maisuz maisu igaro ziren (Hernando de la Vega, Miguel de la Torre, Pedro de Collado), eta azkenean, Gonzalo de Ribasek den-dena nahiko aurreraturik utzi zuen 1577an. Kanpandorrea gelditzen zen, eta hori Juan de Hontañónek amaitu zuen 1587an Bizkaiko Juan de Garitaren trazarekin; korua eta oinetako portada Juan González de Cisniegak egin zuen 1603an.

Oinplanoan, eraikinak lau tarteko hiru nabe ditu, eta nagusiaren burualdean bost ataleko absidea dago. Euskarriko sistema zutabeen bidezkoa da; horien gainean, gangetako arku generatrizeak erortzen dira, den-denak lau puntako izardunak, nabe nagusikoak nerbio kurbo osagarriekin aberastuak (lehenengo tartean izan ezik, bertakoak zuzenak baitira); kapera nagusiarekin modu berezian trabaturik agertzen da, eta formula hori Portugaleteko Andre Maria elizan ere erabiltzen da.

Argia eremu garden eta ilun honetan sartzeko modua baino interesgarriagoa da portada, Errege Katolikoaren estiloko elementua; Gotikoaren eta Errenazimentuaren arteko hibridoa da, oso aberatsa eta anitza, apaindurei dagokienez. Agiriei esker, 1515ean jada egiten ari zirela dakigu.

Oinen portadak, beste alde batetik, pilastren arteko garaipen arkuaren formula erabiltzen du. 1603an trazatu zen, eta garai hartan lurraldean estilo klasizista horrek ia ez zuen presentziarik.

Laburtzeko, Gueñesko Andra Mari eliza balio handikoa da, bere biografia luzean bi estilo erabili izan ditu: batetik, Gotikoa, mailakatua eta konpartimentuduna, hasierako planteamenduan (lehenengo tartea eta portada); bestetik, Errenazimentukoa, zutabedun elizaren edo saloiko elizaren soluzio bateratuan (alemanez, *hallenkirche*), azken hori martxan egindako aldaketa kontzeptualaren ondorioz, kuzeroa erori egin zelako (tenpluaren gainerako zatia). Antzeko zerbait gertatu zen Turtziozen, Elorrion eta Gernikan, Bizkaian XVI. mendeko bigarren laurdenean estiloak elkarren gainekoak izan baitziren.



## ALTZARIAK

Sakristian dagoena bakarrik kontuan hartuta (tiraderak, irudi solteak, urregintza, pintura, etab.), Gueñesko eliza arte sakroaren benetako museotzat har daiteke. Are gehiago elizaren beraren altzari liturgikoak aintzat hartuz gero: erretaulak, batzuk oso interesgarriak.

Garrantzitsuena erretaula nagusia da, zur polikromatuan egina, aurrealde osoa betetzen duen lana; horrek zurgintzaren eta eskulturaren aldetik berez duen balioari eskualdeko eskulturaren historiarako duen interesa gehitu behar zaio; izan ere, XVII. mendeko Barrokoko lan monumental eta goiztiarretarikoa da, horren fase gogorrean eta klasizistan eginda. Egitura Liendoko Bartolomé Martínez eta Pedro de Sopeña maisuek egin zuten (1631-1632), eta tailak nahiz erliebeak Juan de Palacio eta Francisco Alvarezek egindakoak dira (1636-1642). Polikromia apur bat geroagokoa da, 1680koa.

# MUZAKO ZUBIA EDO ZUBI ZAHARRA

Muzako zubia Bizkaiko eraikuntza zibilik dibulgatuenetariko bat da. Pintoreek, argazkilariek eta bidaztiek beti atsegin izan dute zubi hori; horiek euren mihiseetan, kameretan eta bidaia-koadernoetan obra horren edertasuna jaso eta deskribatu dute.



Pasabideak Cadagua ibaiaren bi ibaiertzak lotzen ditu, eta horietan El Cristo eta San Lorenzo auzoak daude, hurrenez hurren; inguru horretan, 1492rarte judutarren aljama bat egon zen. Bertako zoladurak galtzada-harrizko zola dauka eta, gaur egun, oraindik ere bertatik ibiltzeko aukera ematen du, ibilgailuei izan ezik.

Dorreekin gotorturiko zubiaren irudia oso ohikoa izan da Espainian Erdi Aroan. Frías, Basalú edo Toledoko zubiak gogoratzea baino ez dago, kontserbatzen diren zubien artean, baita Logroño eta Najerakoak ere, dagoeneko desagertu direnen artean.

Erromatarren iritziz, dorreak zubien elementu osagarriak ziren, tenplu apal modura balio zuten elementuak; horietan, Jainkoa eta injinerutzako lan horien sustatzaileak (Alcántarako zubiaren kasuan) omentzen ziren.

Egitura horien taula lauaren ordean, ohiko ziluetan bizkarduna erabiltzen hasi zen, eta eredu horrek Erdi Aroan defentsa eginkizuna izan zuen (zubi burua); Balmasedako Muzako zubia behe Erdi Aroko zubi gotorlekuen familia horretakoa da.

Horren balio nagusietariko bat, bestalde, hiru arkuko ziluetan bizkarduna da; erdikoa arku dotorea da (beste biak baino askoz ere handiagoa eta altuagoa), eta gaztelutxo eskuineko ibaiertzetik hurbilen dagoen pila euskarriturik dago.

Gaztelutxoak puntadun arkuko igarobidea dauka eta, horren gainean, kanpora begira dagoen ganbara dago, leiho txikiekin (gelatxo hori zaintzaileentzako gela izango zen segurutik), eta sarbiderako harrizko eskailera dauka.

Herriaren aldetik, pintaturiko armari rococo dagoela dirudi, igeltsuzko euskarriaren gainean. Zalantzarik gabe, Balmasedako armaria da; izan ere, zubiek sarritan tokian tokiko armarien ikonografia hartzen zuten, euren irudia identifikatzeko.

Balmasedakoa hiri zubia da, beste zubi asko bezala (Miranda, Tuter, Salamanca, Córdoba, Logroño eta Bilbo). Horrenbestez, eginkizun estrategikoak zituen ibaien gurutzaguneetan, eta, aldi berean, eginkizun fiskalak ere bazituen: zubisaria kobratzea, hiri eta norbanako askok bidaztiei Erdi Aroan ezartzen zieten ohiko zerga.

Jean Rosmithalek 1465ean gertaturiko jazoera bat kontatzen du; jazoera, berriz, zerga horren ardura zuten langileen eta zergaren gehiegikeria onartzen ez zuen bidazti baten artean gertatu zen; autoreak dioenez, Balmasedako zubisaria kobratzen zutenen basati osparen beldur, bidaztiek ez zuten suzko armarik erabili.



Rosmithalek dioenez, "funtsezkoan zurezko zubia zen, baina gaztelutxoak zeukan"; autore horrek dioenez, dorrea ederra zen. Segurutzik, garai hartan ere bi arku txikiak harrizkoak ziren eta handia zurezkoa, eta oraingo arkuak geroago egin zuten. Zubia Erdi

Arokoa zela bistan dago, dorreko pilarean agorraldi garaietan ikusten diren hargin markak kontuan hartuz. Marka horiek bat datoz Burgosko Mena haraneko baserrietako elizetan ikusten diren marka batzuekin (XII. eta XIII. mendeak).

Segurutzik, andui ateratzeak oso antzinakoak dira, gutxi gorabehera hiribildua sortu zer garaikoak (1199). Eginginean ere, injinerutzako eta azpiegiturako obra horiek biztanleriaren egotea bera justifikatzen dute. Lehenengo erdian, zaintzako dorrea altxatu eta, handik gutxira, erdiko arku handia egin zuten; arku horrek batasun handia dauka multzoaren gainerako zatiaekin. Hori, ostera, ez da agiriaren bitartez datatzeko modukoa.

# SAN SEVERINO ELIZA



San Severino eliza Balmasedako eraikin adierazgarrienetariko bat da Zubi Zaharrarekin batera. Eliza honek lau tramutan garatzen diren hiru nabe ditu. Tramu hauetariko bat transeptoko nabeari dagokio. Burualde

poligonala dauka, bost aldekoa, eta nahiko sakona. Elizaren estetika gotikoa nagusitzen da barnealdean; kanpoaldean, ordea, berrikuntza barrokoek mozorrotu egin dute, neurri baten behintzat, tenplu honen berezko izaera gotikoa. Hala ere, atari bietan, leihoetan eta absideetan gardentasunez mantentzen da jatorrizko sen gotikoa. Barnealdean, erdiko nabeko tramuak zortzi aldeko gurutze gangekin estaltzen dira, eta hauek sortutako bultzadak pilare faszikulatuen bitartez lurreratzen dira.



Eraikin gotiko hau XV. Mendean eraiki zuten, eta lotura formalak man ditu Frantzia eta Aquitaniako ereduarekin (zortzi aldeko gurutze gangak), bai eta Burgosko katedralaren ereduarekin ere (euskarri faszikulatuetan, esate baterako).

Burgosko katedraletik datorren eragina bereziki nabarmentzen da 1535ean eraikitako Santo Kristorena edo Urrutiarena izenez ezagututako kaperan. Juan de Rasines maisu montañesaren eskutik etorri ziren eliza honetara estalkian zortzi alde dituzten kaperen berrikuntza, jada Burgosko katedraleko Kondestablearen kaperan esperimentatua zegoena. Hau omen da, hain zuzen ere, Errenazimentuak Bizkaian duen lehenengo agerpena.



lanak dira.

Eliza honetan egin ziren erreforma barrokoak ere oso adierazkorrak dira. Kalera ematen duten fatxada bietako erremate sinuosoek, pinakuluek eta tontorretako aingerutxuek estilo barroko aberatsa eta dinamikoa osatzen dute, eta Marcos de Santa Teresa Anaiaren (1730)

## **EGILEAK**

- **INMA BARAZAR**
- **AGUSTIN KAMIRUAGA**
- **JOSEBA LARRAURI**
- **FRANCISCO JAVIER SANZ**
- **KOLDO ARANBERRIA**





